

**EUSKADIKO ARRETA ESPEZIALIZATUARI BURUZKO  
DATUEN GUTXIENeko OINARRIZKO MULTZOAREN  
ERREGISTROAREN TXOSTENA**

---

**INFORME DEL  
REGISTRO DEL CONJUNTO MÍNIMO BÁSICO DE  
DATOS DE ATENCIÓN ESPECIALIZADA DE EUSKADI**

**2018**



2020ko Maiatza / Mayo 2020

*Egileak* / Autores : Carlos Jiménez del Río, Luis Javier Echevarría González de Garibay

*Edizioa eta diseinua* / Edición y maquetación : M<sup>a</sup> Victoria Perianes Vilariño

*Erregistroetako eta Osasun-informazioko Zerbitzua. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Servicio de Registros e Información Sanitaria. Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitarias. Departamento de Salud. Gobierno Vasco.

<b>LABURPEN EXEKUTIBOA</b> .....	<b>5</b>	..... <b>RESUMEN EJECUTIVO</b>
<b>SARRERA</b> .....	<b>8</b>	..... <b>INTRODUCCIÓN</b>
<b>MATERIALAK ETA METODOAK</b> .....	<b>9</b>	..... <b>MATERIALES Y MÉTODOS</b>
<b>EMAITZAK</b> .....	<b>12</b>	..... <b>RESULTADOS</b>
<b>1. Datu orokorrak</b> .....	<b>12</b>	..... <b>1. Datos generales</b>
<b>2. Akutuen ospitaleak</b> .....	<b>15</b>	..... <b>2. Hospitales de agudos</b>
2.1. Ospitaleratze arrunta.....	15	..... 2.1 Hospitalización convencional
2.2. Kirurgia anbulatorio.....	21	..... 2.2 Cirugía ambulatoria
<b>3. Egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleak</b> .....	<b>22</b>	..... <b>3. Hospitales de media-larga estancia</b>
<b>4. Ospitale psikiatrikoak</b> .....	<b>25</b>	..... <b>4. Hospitales psiquiátricos</b>
<b>TAULAK</b> .....	<b>26</b>	..... <b>TABLAS</b>
<b>ESKER ONAK</b> .....	<b>84</b>	..... <b>AGRADECIMIENTOS</b>



2016. urtean araudi berria indarrean sartu da. Horrek azaltzen du alta ospitalarioa derrigorrez ez diren arretak erregistratuko direla. Hori dela eta, jasotako osasun arretei, **kontaktuak** deituko zaie.

- **Adierazitako kontaktuak:** 2018an, 382.081 kontaktu izan dira guztira, ospitale publiko zein pribatuetan, ospitalizazioa eta kirurgia ambulatorioa kontuan hartuta.

Izandako kontaktu guztietatik, % 78,0 ospitale publikoetan izan dira, eta % 22,0 pribatuetan.

Txosten honetako analisietan, kontrakoa adierazten ez bada, bakarrik hartuko dira kontuan EAEko bertakoen kontaktuak (318.952 guztira).

- **Batez besteko egonaldia:** 5,4 egun ospitalizazio arruntetan, akutuen ospitaleetan. Sare publikoan 5,6 egun izan da batez-besteko egonaldia eta pribatuan 4,3 egun.

Ospitalizatutako pertsonen adinean ere aldeak izan dira, ospitale publikoen (batezbestekoa 59,9) eta pribatuen (batezbestekoa 59,0) artean.

En el año 2016 entró en vigor la nueva normativa que indica que se registrarán atenciones que no tienen por qué implicar un alta hospitalaria. Por esta razón, a las atenciones sanitarias recibidas por los pacientes se las denominará **contactos**.

- **Contactos declarados:** en 2018 el número total ha sido de 338.081, incluyendo hospitales públicos y privados, contabilizando hospitalización y cirugía ambulatoria.

El 78,0%, del total de contactos registrados corresponde a los hospitales públicos y el 22,0% a los hospitales privados.

En los análisis de este informe, salvo mención expresa en sentido contrario, se contabilizarán únicamente los contactos hospitalarios de residentes en la Comunidad Autónoma Vasca (318.952 en total).

- **Estancia media:** ha sido de 5,4 días en hospitalización convencional, en los hospitales de agudos. En el caso de la red pública esta estancia ha sido 5,6 días de media y en la privada de 4,3 días de media.

La edad de los pacientes también ha presentado diferencias entre hospitales públicos (media 59,9) y privados (media 59,0).

- **Ospitalizazio-tasa:** 89,1 izan da Osakidetzako ospitaleetako ohiko kontaktuen kopurua 1.000 biztanleko. Aldeak daude lurralde historiko batetik bestera: Arabak du tasarik altuena (107,3) eta Bizkaiak baxuena (84,0), aurreko urtean bezala.

- **Ospitalizatze arrazoia:** "Kolelitiasi" izan da akutuen ospitale publikoetan ospitalizazio arrunterako arrazoi nagusia (3.972 kontaktu; bertako kontaktu guztien % 2,0). Ospitale pribatuetan, berriz, "Belaunetako artrosi" (1.014 kontaktu; bertako kontaktu guztien % 2,8). Gaixotasun-multzoak, ISHMT-sailikapenaren arabera, kontuan hartuta, kontaktu gehienak digestio-aparatuko gaixotasunen arloan izan dira, 30.138 kontaktu (%13,1), eta atzetik, zirkulazio-aparatukoetan -29.393 kontaktu (%12,8)-.

- **Lehenengo prozedura kirurgikoa:** akutuen ospitale publikoetako ospitalizazio arruntetan, emakumeen kasuan erditzean laguntzekoak izan dira prozedurarik ohikoenak: "Erditzean laguntzeko beste prozedura batzuk" (8.616 kontaktu; % 9,0), eta hurrengoa "Aldakak erabat edo partzialki ordeztzea" (1.616 kontaktu; %1,7); eta gizonen kasuan "Azalen zeharreko koronarioetako angioplastia transluminal" (2.229 kontaktu; % 2,3).

- **Tasa de hospitalización:** el número de contactos convencionales en los hospitales de Osakidetza por 1.000 habitantes ha sido de 89,1. Se observan diferencias entre los territorios históricos, presentando, al igual que en el año anterior, Álava la mayor tasa (107,3) y Bizkaia la menor (84,0).

- **Causas de hospitalización:** en los hospitales públicos de agudos la principal causa de hospitalización convencional ha sido la "Colelitiasis" (3.972 contactos, el 2,0% del total de sus contactos); en el caso de los hospitales privados ha sido "Artrosis de rodilla" (1.014 contactos, el 2,8% del total de sus contactos). Considerando los grupos de enfermedades según la clasificación del ISHMT, el mayor número de contactos corresponde a enfermedades del aparato digestivo, 30.138 contactos (13,1%), seguidas de las enfermedades del aparato circulatorio, 29.393 (12,8%).

- **Primer procedimiento quirúrgico:** en hospitalización convencional en los hospitales públicos de agudos los procedimientos más frecuentes, en el caso de las mujeres, han sido los relacionados con el parto: "Otros procedimientos para ayudar al parto" (8.616 contactos; 9,0%), seguidos de "Sustitución de caderas total y parcial" (1.616 contactos; 1,7%); y, en el caso de los hombres, la "Angioplastia percutánea transluminal coronaria" (2.229 contactos, 2,3%).

Ospitale pribatuetako ospitalizazio arruntetan, berriz, maizen izan den prozedura kirurgikoa "Ebakuntza-gela erabiltzen duten beste prozedura terapeutiko batzuk larruzalean eta bularrean" izan da emakumeen kasuan (1.071 kontaktu; % 5,7), eta "Artikulazioetako beste prozedura terapeutiko batzuk ebakuntza-gela erabiltza" gizonen kasuan (947 kontaktu; % 5,5).

Datu horiek balioesterakoan, kontuan hartu behar da sare publikoko kontaktuen % 48,5etan ez dela prozedura kirurgikorik egon edo ez da erregistratu. Ehuneko hori % 29,2ra jaisten da sare pribatuan.

Kirurgia ambulatorioan "Kristalinoaren eta kataraten gaineko prozedurak" izan dira prozedurarik ohikoena ospitale publikoetan, bai gizonetan eta emakumeetan, 20.538 kontaktu guztira (%45,1).

Sare pribatuan, bi sexuetan prozedurarik ohikoena "Azal lesioaren gaineko eszisiaoa", guztira 4.000 (% 13,1) kontaktukopuruarekin.

En hospitalización convencional en los hospitales privados, el primer procedimiento quirúrgico más frecuente ha sido "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre piel y mama" (1.071 contactos, 5,7%) en el caso de las mujeres; y "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre articulaciones" (947 contactos, 5,5%) en el caso de los hombres.

En la valoración de estos datos hay que tener en cuenta que en el 48,5% de los contactos en la red pública no se registra o no ha habido ningún procedimiento quirúrgico. Este porcentaje baja al 29,2% en la red privada.

En cirugía ambulatoria los procedimientos más frecuentes en hospitales públicos, tanto en hombres como en mujeres, han sido "Procedimientos sobre cristalino y cataratas", con 20.538 (45,1%) contactos en total.

En la red privada, en ambos sexos el procedimiento más frecuente fue "Escisión en lesión de piel", con 4.000 contactos (13,1%) en total.

*Txosten honetan, 2018ko Euskadiko Arreta Espezializatuari buruzko Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoaren (AE-DGOM) erregistroaren datuak jaso ditugu. Erregistro hau Ospitaleetako Alten Erregistro (OAE)<sup>1</sup> ohia da.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitale publikoek (Osakidetzako sarekoek) eta pribatuek emandako kontaktuak osatuta dago.*

*Osasun Sailak kudeatzen du AE-DGOM erregistroa; bertan, paziente bakoitzaren Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoa (DGOM) osatzen duten aldagai klinikoak, demografikoak eta administratiboak jasotzen dira, arauen bidez xedatutako moduan<sup>2,3</sup>.*

El presente informe recoge los datos contenidos en el registro del Conjunto Mínimo Básico de Datos de Atención Especializada de Euskadi (CMBD-AE), anteriormente Registro de Altas Hospitalarias (RAH)<sup>1</sup>, correspondientes al año 2018.

Incluye los contactos remitidos por los hospitales públicos (red de Osakidetza) y privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

El CMBD-AE es un registro gestionado por el Departamento de Salud, que contiene el conjunto de variables clínicas, demográficas y administrativas establecidas normativamente<sup>2,3</sup> que constituyen el Conjunto Mínimo Básico de Datos (CMBD) de cada paciente.

---

<sup>1</sup> AGINDUA, 2015eko urriaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, Ospitaleetako Alta Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoan aldagai berriak sartzekoa eta aldagai horiek Osasun Arreta Espezializatuko jardueretan sartzeko egutegia finkatzekoa.

ORDEN de 13 de octubre de 2015, del Consejero de Salud, por la que se incorporan nuevas variables al conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria y se establece el calendario de su incorporación a las actividades de Atención Sanitaria Especializada.

<sup>2</sup> 303/1992 DEKRETUA, azaroaren 3koa, Ospitaleetako Alta Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoa arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ospitaleetako Alta Erregistroa sortzen duena.

DECRETO 303/1992, de 3 de noviembre, por el que se regula el conjunto mínimo básico de datos del Alta Hospitalaria y se crea el registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.

<sup>3</sup> 69/2015 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 6koa, osasun-arreta espezializatuaen jarduera-erregistroa arautzen duena.

REAL DECRETO 69/2015, de 6 de febrero, por el que se regula el registro de actividad de atención sanitaria especializada.



Txosten honetan, EAEko ospitale publikoetan eta pribatuetan 2018an alta jaso zuten pazienteen datuak aztertu ditugu. Aurreko urteetako txostenetan bezala, erregistroak bi kategoriatan sailkatu dira, asistentzia-motaren arabera:

- **Ospitaleratze arrunta:** egun batetik (24 ordu) gorako egonaldia duten ospitaleratzei buruzko kontaktuak jasotzen ditu. Egun batetik (24 ordu) beherako egonaldia duten ospitaleratzei buruzko altak ere jasotzen dira multzo honetan, arrazoa izan bada beste ospitale batera lekualdatu dituztela, borondatezko alta hartu dutela edo hil egin direla.

- **Kirurgia ambulatorioa:** egun batetik (24 ordu) beherako egonaldia duten ospitaleratze programatuei buruzko kontaktuak jasotzen ditu, ospitalizazio arruntzat jotakoak izan ezik.

Txostena egiteko, AE-DGOMaren egitura ezartzen duten arauetan<sup>1,2,3</sup> adierazitako aldagaiak erabili dira. Jasotako informazioarekin, adierazle garrantzitsu hauek landu dira, horiek aztertzeari ekiteko:

- **Batez besteko egonaldia.** Egonaldi egun kopuruaren eta kontaktu-kopuruaren arteko zatidura da.

Los datos analizados corresponden a los de los pacientes dados de alta en el año 2018, en los hospitales públicos y privados de la CAPV. Como en los informes de años anteriores, los registros se han categorizado en dos grupos, de acuerdo con el tipo de asistencia:

- **Hospitalización convencional:** incluye los contactos correspondientes a ingresos con una estancia superior a un día (24 horas). En este grupo también se incluyen los ingresos con una estancia menor de un día (24 horas) debidas a altas por traslados a otros hospitales, altas voluntarias y por defunciones.

- **Cirugía ambulatoria:** correspondientes a contactos de ingresos programados con estancia menor de un día (24 horas), a excepción de los casos considerados como hospitalización convencional.

Las variables utilizadas son las recogidas en las normas que establecen la estructura del CMBD-AE<sup>1,2,3</sup>. A partir de la información recibida se han elaborado para su análisis los siguientes indicadores relevantes:

- **Estancia media.** Cociente entre el número de días de estancia y el número de contactos.

- **Erabilera-tasa.** Urtean 1.000 biztanleko izaten den kontaktu-kopurua da. Izendatzaile gisa, 2018ko Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuaren biztanleria (EUSTAT) erabili da.

- **Tasen arrazoia.** Bi erabilera-tasen zatidura da.

Datuen kalitatea ebaluatzeko, nahitaezko aldagai administratiboan eta klinikoen betetze-maila hartzen da aintzat (ospitaleratze mota, alta mota, bizilekua, diagnostiko nagusia, eta abar), eta baita ospitaleratze-uneko diagnostikoaren adierazlea ere (POA, Present On Admission).

Erregistratutako informazioaren azterketa, funtsean, deskribatzailea da, eta oinarritzko aldagai administratiboak, diagnostiko nagusia eta lehenengo prozedura kirurgikoa hartu dira kontuan. Azterketa EAEn bizi direnekin egin da. Hori guztia egiteko, SAS 9.4<sup>4</sup> software erabili da.

Diagnostiko nagusia eta lehenengo prozedura kirurgikoa ebaluatu aurretik, multzo homogeenetan banatu dira biak.

- **Tasa de utilización.** Es el número de contactos por cada 1.000 habitantes/año. El denominador utilizado ha sido la población del Censo de Población y Vivienda 2018 (EUSTAT).

- **Razón de tasas.** Es el cociente entre dos tasas de utilización.

La evaluación de la calidad de los datos se ha realizado considerando el grado de cumplimentación de las variables administrativas y clínicas obligatorias (tipo de ingreso, tipo de alta, lugar de residencia, diagnóstico principal, etc.), así como el del indicador de diagnóstico presente al ingreso (POA, Present On Admission).

El análisis de la información registrada es básicamente descriptivo, considerando las variables administrativas básicas, junto con el diagnóstico principal y primer procedimiento quirúrgico. El estudio se ha centrado en los casos correspondientes a los residentes en la CAE. Para su realización se ha utilizado el software SAS 9.4<sup>4</sup>.

Previamente al análisis del diagnóstico principal y primer procedimiento quirúrgico, ambos se han distribuido en grupos homogéneos.

<sup>4</sup> SAS Institute Inc., 2014. SAS Campus Drive, Cary, North Carolina 27513, USA.

*Diagnostiko nagusien kasuan bi metodologia erabili dira: alde batetik, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. berrikusketa, Aldaketa Klinikoa hartu da kontuan (GNS-10-ES)<sup>5</sup>, eta sailkapen horren lehenengo hiru digituak oinarri hartuta egin dira multzoak. Eta, bestetik, International Shortlist for Hospital Morbidity Tabulation-en (ISHMT)<sup>6</sup> proposatzen den sailkapena erabili da.*

En el caso de los diagnósticos principales se han empleado dos metodologías; por un lado se ha considerado la Clasificación Internacional de Enfermedades, 10ª revisión, Modificación Clínica (CIE-10-ES)<sup>5</sup>, teniendo en cuenta los grupos en base a los tres primeros dígitos de esa clasificación. En segundo lugar se ha utilizado la clasificación propuesta en la International Shortlist for Hospital Morbidity Tabulation (ISHMT)<sup>6</sup>.

*Prozedura kirurgikoei dagokienez, CCS prozedurak multzokatzeko tresna erabili da, Agency of Healthcare Research and Quality (AHRQ-USA)<sup>7</sup> erakundearena.*

En el caso de los procedimientos, para su clasificación se ha utilizado el agrupador de procedimientos CCS, de la Agency of Healthcare Research and Quality (AHRQ-USA)<sup>7</sup>.

---

<sup>5</sup> Clasificación Internacional de Enfermedades. 10.ª Revisión, Modificación Clínica. Edición Española. Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social; Dirección General de Salud Pública, Calidad e Innovación; Subdirección General de Información Sanitaria e Innovación.

<sup>6</sup> World Health Organization. (2009). International Shortlist for Hospital Morbidity Tabulation (ISHMT).


<sup>7</sup> Beta Clinical Classifications Software (CCS) for ICD-10-CM/PCS. Healthcare Cost and Utilization Project (HCUP). March 2018. Agency for Healthcare Research and Quality, Rockville, MD. [www.hcup-us.ahrq.gov/toolssoftware/ccs10/ccs10.jsp](http://www.hcup-us.ahrq.gov/toolssoftware/ccs10/ccs10.jsp).

### 1. Datu orokorrak

EAEEn, 2018ko urtean, 338.081 kontaktu erregistratu ziren guztira ospitaletan, egoiliarak eta ez-egoiliarak kontuan hartuta.

### 1. Datos Generales

El número total de contactos hospitalarios registradas en la CAPV durante el año 2018 fue de 338.081, considerando residentes y no residentes.



**1. irudia.** 2010-2018 urteak bitartean guztira izandako kontaktuen kopurua eta kopuru horretatik sare publikoko (Osakidetza) eta sare pribatuko ospitaleetan izandako kontaktuen ehunekoa.

**Figura 1.** Número de contactos totales y distribución porcentual entre hospitales de la red pública (Osakidetza) y la red privada entre los años 2010 y 2018.

Erregistratutako multzo honen kontaktuen % 96,1 akutuen ospitaletan eman ziren.


De este conjunto de contactos registrados el 96,1% lo fueron en hospitales de agudos.

Erregimen ambulatorioak (kontaktuen % 23,7) pisu erlatibo handiagoa du ospitale pribatuetan (2. irudia).

El régimen ambulatorio (el 23,7% de las contactos) tiene un mayor peso relativo en los hospitales privados (figura 2).

EAE bizi ez diren pazienteen kopurua txikia bada ere –guztira kontaktuen % 5,7– gehiago izaten dira sare pribatuan (% 6,7) publikoan baino (% 5,4).

Aunque el número de pacientes no residentes en la CAE es pequeño, en conjunto un 5,7% de los contactos, su importancia es mayor en la red privada (6,7%) que en la pública (5,4%).



**2. irudia.** Kontaktuen banaketa, guztira eta arreta motaren arabera.

**Figura 2.** Distribución de contactos totales y por tipo de asistencia.

Hemendik aurrera aurkeztutako datuak, [1. eta 2.](#) tauletan izan ezik, soilik kontuan hartuko dute EAEko egoiliarak.

[1. taulan](#) ikusten denez, egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan izaten diren kontaktuen kopurua ez da oso handia, kontaktu guztien % 3 bakarrik; hori bai, gehiago betiere sare publikoan (%2,5) pribatuan baino (%0,5)

Erregistratutako informazioaren kalitateari dagokionez, aztertu diren datuen emaitzak laburbildu dira [3.1.](#) eta [3.2. tauletan](#). [3.1. taulan](#) nahitaezko hiru aldagairen (bizilekua, adina, diagnostiko nagusia) betetze-maila jaso da, ospitalizazio arruntei dagokienez.


Los datos presentados de aquí en adelante, con la excepción de las [tablas 1 y 2](#), se refieren exclusivamente a residentes en la CAPV.

Como se puede ver en la [tabla 1](#), el número de contactos en los hospitales de media-larga estancia es pequeño, en conjunto un 3% del total, siendo su contribución mayor en la red pública (2,5%) que la privada (0,5%).

Respecto a la calidad de la información registrada, en las [tablas 3.1 y 3.2](#), se resumen los resultados de los datos analizados. En la [tabla 3.1](#) se recoge el grado de cumplimentación de tres variables obligatorias (municipio de residencia, edad, diagnóstico principal) en los casos de hospitalización convencional.

[3.1. taula](#) horretan bertan, “ospitaleratze-uneko diagnostikoa” (POA) aldagaiaren azterketari buruzko emaitzak ere ikusten dira.

En la misma [tabla 3.1](#), se muestran igualmente los resultados del análisis de la variable “diagnóstico presente al ingreso” (POA).



**3. irudia.** Ospitale mota bakoitzean erregistratutako diagnostikoen batez besteko kopurua kontaktu bakoitzean.

**Figura. 3** Número medio de diagnósticos registrados por contacto en los distintos tipos de hospitales.

[3.2. taulan](#), ospitale publiko zein pribatuetan, EAEn bizi diren pazienteen diagnostikoei eta egindako prozedurei buruzko datuak laburbiltzen dira. Paziente guztiak kontuan hartuta, batez beste 5,8 diagnostiko kontaktu bakoitzatik.

En la [tabla 3.2](#) se resumen los datos relativos a diagnósticos y procedimientos realizados a los pacientes, residentes en la CAPV, en los distintos hospitales. Para el conjunto de pacientes se registró una media de 5,8 diagnósticos por cada contacto.

Ikusten denez –3. irudia– diagnostiko gehiago erregistratu ziren egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan akutuetakoetan baino, bai eta Osakidetza sarean ere pribatuetan baino.

Como puede apreciarse en la Figura 3, se registra un mayor número de diagnósticos en los hospitales de media larga estancia frente a los agudos; así como en los de la red de Osakidetza en comparación con los privados.

Erregistratutako prozedura kopurua kontaktu bakoitzean, batez beste 1,6 izan da ([3.2. taula](#)) 2018ean.

Sare publikoko akutuen ospitaleetan egindako prozedura kopurua kontaktu bakoitzean pribatuetakoa bezalakoa da: 1,6.

Hemendik aurrera, bi ospitale mota (akutuen eta egonaldi ertain-luzekoan) azterketa zehatzagoa egingo dugu.

## 2. Akutuen ospitaleak

### 2.1. Ospitaleratze arrunta

[4. taulan](#) ospitaleratze arruntean kontaktu jaso duten pazienteen adinari eta batez besteko egonaldiari buruzko datuak jaso dira. Bi kasuetan, batez besteko balio handiagoak ageri dira sare publikoko ospitaleetan pribatuetakoetan baino.

Ospitalizazio motan ere nabari dira bi sareen arteko aldeak ([4. irudia](#)). Osakidetza ospitaleetan ospitaleratze urgenteen eta programatuen arteko erlazioa 2:1 inguru da, baina ospitale pribatuetan irauli egiten da proportzio hori.

El número de procedimientos registrados por contacto, ha sido 1,6 de media ([Tabla 3.2](#)) en el año 2018.

El número de procedimientos por contacto en los hospitales de agudos de la red pública es igual a los de la red privada: 1,6.


A continuación se realiza un estudio más pormenorizado de cada uno de los dos tipos de hospitales: de agudos y de media-larga estancia.

## 2. Hospitales de agudos

### 2.1. Hospitalización convencional

En la [tabla 4](#) se resumen los datos relativos a la edad y estancia medias de los pacientes con contactos de hospitalización convencional. En ambos casos, se observan unos valores medios mayores en los hospitales de la red pública que en los de la privada.

Las diferencias entre ambas redes también se manifiestan en el tipo de ingreso ([figura 4](#)). Mientras en los hospitales de Osakidetza la relación entre ingresos urgentes y programados es aproximadamente de 2 a 1, en el caso de los privados la proporción se invierte.



**4. irudia.** Ospitaleratze arrunt motaren banaketa, ospitale publikoetan eta pribatuetan.

**Figura 4.** Distribución del tipo de ingreso en hospitalización convencional, en hospitales públicos y privados.

Alta motari dagokionez ([5. taula](#)), eredu berari jarraitzen diote bi sareek.

[6. taulan](#), zerbitzuko banakatu dira ospitalizazio arrunteko kasuei buruzko datuak. Kontaktu kopuru handiena barne-medikuntzako zerbitzuetan izan da (% 15,5); atzetik datoz, traumatologia eta kirurgia ortopedikoa; kirurgia orokorra eta aparatu digestibokoa; eta obstetrizia-ginekologia (% 12,9, 10,7 eta 9,9 hurrenez hurren). Gainerako zerbitzuak ez dira % 10era iristen. Aipatu berri diren zerbitzuak lehenengo lau postuetan daude bi sareetan, baina aldeak daude ordenan. Ospitale publikoetan, barne-medikuntza, eta traumatologia eta kirurgia ortopedikoa zerbitzuetan izaten da kontaktu kopuru handiena (% 15,4 eta 10,8 hurrenez hurren); ospitale pribatuetan, berriz, traumatologian eta kirurgia ortopedikoan, eta barne medikuntzan (% 24,5 eta 16,3 hurrenez hurren).


Respecto al tipo de alta ([tabla 5](#)), el patrón es similar en ambas redes.

En la [tabla 6](#) se desglosa la información de los casos de hospitalización convencional por servicio. El mayor número de contactos corresponde a los servicios de medicina interna (15,5%), seguidos de traumatología y cir. ortop.; cirugía general y digestiva; y obstetricia-ginecología (12,9; 10,7; y 9,9%, respectivamente). El resto de servicios tiene un peso inferior al 10%. Los servicios anteriormente citados ocupan las cuatro primeras posiciones en ambas redes, con diferencias en el orden. En los hospitales públicos son los servicios de medicina interna, y traumatología y cirugía ortopédica (15,4 y 10,8%, respectivamente) los que tienen un mayor número de contactos, mientras que en los privados son traumatología y cirugía ortopédica, y medicina interna (24,5 y 16,3%) respectivamente).



Pazienteen sexuari dagokionez ([7. taula](#)), bi sexuak orekatuta daude emandako kontaktu guztietan (% 50,3 eta % 49,7; gizonak eta emakumeak hurrenez hurren). Sexuarekin batera adina ere kontuan hartzen bada, aldeak handiagoak dira. Emakumeak gizonak baino kontaktu gehiago izan dira 15-29 eta 30-49 adin-taldeetan, hau da ugalkortasun-aldian, baina gutxiagori, adin horietatik behera eta gora. Alde horiek nabarmenagoak dira 1.000 biztanleko ospitalizazio-tasak aztertzen badira, bereziki 50 urtetik gorakoen taldeetan (5. irudia).

En cuanto al sexo de los pacientes ([tabla 7](#)), ambos sexos contribuyen de forma equilibrada al total de contactos (50,3 y 49,7%, en hombres y mujeres, respectivamente). Si junto con el sexo se considera la edad, las diferencias son mayores. En las mujeres se da un mayor número de contactos que en los hombres en los grupos de edad de 15-29 y 30-49, es decir en el período fértil, e inferior tanto por debajo como por encima de estos tramos. Estas diferencias son más acusadas cuando se analizan las tasas de hospitalización por cada 1.000 habitantes, en especial en los grupos de edad mayores de 50 años (figura 5).



**5. irudia.** Tasak, 1.000 biztanleko, adinaren eta sexuaren arabera, ospitaleratze arrunten kasuetan.


**Figura 5.** Tasas, por 1.000 habitantes, por grupos de edad y sexo, en casos de hospitalización convencional.

[8. taulan](#) laburbildu da guztizko kontaktuei, pertsonako kontaktu-kopuruari eta erabilera-tasei buruzko informazioa; ospitale publiko edo pribatuen arabera, pazienteak bizi diren lurralde historikoaren arabera eta pazientearen sexuaren arabera sailkatu da informazioa.

La información sobre contactos totales, número de contactos por persona y tasas de utilización se resume en la [tabla 8](#); se clasifica por hospitales públicos y privados, territorio histórico de residencia y sexo del paciente.

Bi ospitale sareetan, gizonak kontaktu-kopuru handiagoa dute pertsonako.

En ambas redes hospitalarias, los hombres presentan un mayor número de contactos por persona.



**6. irudia.** Ospitaleratze arrunteko talde diagnostiko ohikoena, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. Emakumezkoen kasuan, ehunekoak kalkulatzeko ez dira kontutan hartu «Haurdunaldia, erditzea eta puerperio» taldeko kontaktuak.

**Figura 6.** Grupos diagnósticos más frecuentes en hospitalización convencional, según territorio histórico y sexo. En el caso de la mujeres no se han considerado los contactos de grupo "Embarazo, parto y puerperio" para el cálculo de los porcentajes.

[9.1](#) eta [9.2. taulan](#) ageri dira diagnosi-multzoaren araberako kontaktuak, gizonezko nahiz emakumezkoenak, hurrenez hurren. «Haurdunaldia, erditzea eta puerperio» taldea dagoenez, eta emakumezkoen artean kontaktu-kopuru handian izaten duen multzoa denez, zaila gertatzen da sexuen arteko gainerako diagnosi-multzoen alderatzea. Esandakoa saihesteko, 6. irudian ohiko diagnosi-multzo pisu erlatiboa irudikatu da, kontaktu-kopuruaren ehuneko gisa, «Haurdunaldia, erditzea eta puerperio» taldea kontuan hartu gabe.

Irudi horretan ikusten da zirkulazio-aparatuko, digestio-aparatuko eta arnas-aparatuko diagnostikoen ehunekoa handiagoa izaten dela gizonezkoetan; emakumeetan, berriz, ohikoagoak dira lesioen eta pozoiduren eta aparatu muskuloeskeletiko diagnostikoak.

[10. taulan](#) jaso dira diagnostiko nagusian maiz izaten diren prozesuak, Osakidetzaren sareko ospitaleetan. «Kolelitiasi» eta «Pneumonia, zehaztugabeko organismoak sortua» dira prozesu ohikoenak.

[11.1.](#) eta [11.2. tauletan](#) jaso da ospitale pribatuei buruzko informazioa. «Belaunetako artrosi» eta «Belauneko barruko lesio» dira diagnostiko ohikoenak.

Los contactos por grupo diagnóstico, en hombres y mujeres, se muestran en las [tablas 9.1](#) y [9.2](#), respectivamente. La existencia del grupo “Embarazo, parto y puerperio”, que además es el grupo con un mayor número de contactos entre las mujeres, dificulta la comparación de la del resto de grupos de diagnóstico entre sexos. Para obviar esta situación, en la figura 6 se representa el peso relativo de los grupos de diagnósticos más frecuentes, como porcentaje respecto al número de contactos, sin considerar las de dicho grupo “Embarazo, parto y puerperio”.

En esta figura se aprecia que el porcentaje de diagnósticos de los aparatos circulatorio, digestivo y respiratorio tienden a ser mayores entre los hombres, mientras que los correspondientes a lesiones y envenenamientos, junto a los del aparato musculoesquelético, son más frecuentes en las mujeres.

En lo referente a los procesos más frecuentes en el diagnóstico principal en los hospitales de la red de Osakidetza, se recogen en la [tabla 10](#). La “Colelitiasis” y “Neumonía, microorganismo no especificado” son los procesos más frecuentes.

La información referida a los hospitales privados se recoge en las [tablas 11.1](#) y [11.2](#). Los diagnósticos más frecuentes son “Artrosis de rodilla” y “Trastorno interno de rodilla”.

Azaldu diren diagnostiko maiztasunekin, normala da kontaktu gehien barne-medikuntzan eta traumatologian ematea ([12. taula](#)).

[13. taulan](#) International Shortlist<sup>6</sup> for Hospital Morbidity Tabulation-en arabera (ISHMT) multzokatu diren diagnostikoen maiztasuna laburtzen da. Digestio, zirkulazio eta arnas aparatuko gaixotasunek eragiten dituzte ospitaleratze gehienak (% 13,1, % 12,8 eta % 12,5, hurrenez hurren); atzetik datoz neoplasiak (% 9,8). Kontrako muturrean daude entzumeneko eta mastoide-apofisiko gaixotasunak (% 0,6) eta sortzetiko anomaliak (% 0,5).

Prozedurei dagokienez, CCS sailkapenaren<sup>7</sup> arabera multzokatutako prozedura-taldeak ebaluatu dira. Ospitale publikoetan lehenengo prozedura kirurgiko gisa gehien erregistratzen diren 10 kategoriak [14.1. taulan](#) zerrendatu dira, eta ospitale pribatuetakoak [14.2. taulan](#), sexuaren arabera berezita.

Sare publikoan kategoría hauek dira gehien erabiltzen direnak: "Erditzeari laguntzeko beste prozedura batzuk", "Aldakaren ordezkapen partziala edo erabatekoa" eta "Azalean zeharreko koronarioetako angioplastia transluminal".

Alde handiak daude sexuen artean. Gizonetan, "Azalean zeharreko

Las frecuencias de diagnósticos descritas explicarían que los servicios con un mayor número de contactos sean Medicina Interna y Traumatología ([tabla 12](#)).

En la [tabla 13](#) se resume la frecuencia de los diagnósticos agrupados según la International Shortlist<sup>6</sup> for Hospital Morbidity Tabulation (ISHMT). Las enfermedades de los aparatos digestivo (13,1%), circulatorio (12,8%), y respiratorio (12,5%), son las que generan un mayor número de ingresos hospitalarios, seguidas de las neoplasias (9,8%). En el extremo opuesto están las enfermedades del oído y las de la apófisis mastoides (0,6%), junto a las anomalías congénitas (0,5%).

En cuanto a los procedimientos, se han evaluado los grupos de procedimientos de acuerdo con la clasificación<sup>7</sup> CCS. Las diez categorías más registradas, como primer procedimiento quirúrgico, se relacionan en las [tablas 14.1](#), (hospitales públicos) y [14.2](#) (hospitales privados), diferenciadas por sexo.

En la red pública la categoría más frecuente es "Otros procedimientos para ayudar al parto", seguida por "Sustitución total o parcial de caderas" y "Angioplastia percutánea transluminal coronaria".

Existen grandes diferencias entre sexos. En los hombres "Angioplastia percutánea

koronarioetako angioplastia transluminal" eta "Iztai- eta izter-hernia konpontzea" agertzen dira lehenengo postuetan, eta hurrengoak da "Uretran zeharreko eszisia, drainatzea edo gertu-buxadura kentzea". Emakumeetan, berriz, erditzearekin zerikusia duten prozedurak dira gehien erregistratzen direnak: "Erditzeari laguntzeko beste prozedura batzuk". Hurrengoak dira "Aldakak erabat edo partzialki ordezte" eta "Kolezistektomia eta behazun-hodi komunaren miaketa".

Ospitale pribatuetan, berriz, "Ebakuntza-gela erabiltzen duten beste prozedura terapeutiko batzuk giltzaduretan" eta "Ebakuntza-gela erabiltzen duten beste prozedura terapeutiko batzuk larruazalean eta bularrean" dira ohikoenak.

Kasu honetan ere aldeak badaude sexuen artean. Hauek dira gehien egiten diren bi prozedurak: "Ebakuntza-gela erabiltzen duten beste prozedura terapeutiko batzuk giltzaduretan" eta "Iztai- eta izter-hernia konpontzea" gizonetan, eta "Ebakuntza-gela erabiltzen duten beste prozedura terapeutiko batzuk larruazalean eta bularrean" eta "Kristalinoaren eta kataraten gaineko prozedura" emakumeetan.

## 2.2. Kirurgia ambulatorioa

[15. taulan](#), kirurgia ambulatorio handi y eta txiki datuak laburbildu ditugu.

16. taulan jaso dira kirurgia handi

transluminal coronaria" y "Reparación de hernia inguinal y femoral" ocupan los primeros puestos, seguidas por "Escisión transuretral, drenaje o eliminación de obstrucción urinaria". Por el contrario, entre las mujeres los procedimientos más registrados son los relacionados con el parto: "Otros procedimientos para ayudar al parto", seguidos por "Sustitución de caderas total y parcial" y "Colecistectomía y exploración del conducto común".

En los hospitales privados, en cambio, los más frecuentes son "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre articulaciones" y "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre piel y mama".

También en este caso existen diferencias entre sexos. Los dos procedimientos más habituales son: "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre articulaciones" y "Reparación de hernia inguinal y femoral" en hombres y "Otros procedimientos terapéuticos con uso de quirófano sobre piel y mama" y "Procedimientos sobre cristalino y cataratas" en mujeres.

## 2.2. Cirugía ambulatoria

En la [tabla 15](#) se resumen los datos de contactos en cirugía ambulatoria mayor y menor.

Los diez procedimientos quirúrgicos más

ambulatorioan lehenengo prozedura kirurgiko gisa gehien erregistratzen diren lehenengo hamar prozedura kirurgikoak, CCS sailkapenaren arabera multzokatuta. Ospitale publikoetan [-16.1. taula-](#) prozedura-motarik ohikoena “Kristalinoaren eta kataraten gaineko prozedurak” da. Pribatuetan [-16.2. taula-](#) , aldiz, “Larruazaleko lesioren gaineko eszizio” da.

### 3. Egonaldi ertaineko/luzeko ospitaleak

[17.1. taulan](#) banakatu dira egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan egon direnen batez besteko adina eta egin duten egonaldia, eta [17.2. taulan](#) alta mota agertzen da.


frecuentemente registrados como primer procedimiento quirúrgico, en cirugía mayor ambulatoria se recogen en la tabla 16, agrupados de acuerdo con la clasificación CCS. En los hospitales públicos ([tabla 16.1](#)) el tipo más frecuente son los “Procedimientos sobre cristalino y cataratas”. En los hospitales privados ([tabla 16.2](#)), por el contrario, el tipo más frecuente es “Escisión de lesión de piel”.

### 3. Hospitales de media-larga estancia

La edad y estancia medias en los hospitales de media-larga estancia se desglosan en la [tabla 17.1](#), y el tipo de alta en la [tabla 17.2](#).

7. irudian kontaktuen banaketa ikusten da adin-talde handien eta sexuaren arabera. 80 urtera bitarte, ospitalizazio-kasu gehiago dago gizonen artean, baina joera hori alderantzikatu egiten da adin horretatik aurrera.

La distribución de los contactos, por grandes grupos de edad y sexo se muestra en la figura 7. Hasta los 80 años se observa un mayor número casos de hospitalización en hombres, tendencia que se invierte a partir de esta edad.




**7. irudia.** Ospitaleratze arrunteko kontaktuak, adinaren eta sexuaren arabera taldeetan banatuta, egonaldi ertaineko/luzeko ospitale publikoetan. Ehunekoa kontaktu kopuru osoarekiko.

**Figura 7.** Distribución de las contactos por grupos de edad y sexo de hospitalización convencional, en los hospitales públicos de media-larga estancia. Porcentaje sobre el total de contactos.

[18.1. taulan](#) –gizonak– eta [18.2. taulan](#) –emakumeak– diagnostiko multzoaren eta lurraldearen arabera kontaktuak ikusten dira, egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoak kontuan hartuta; grafikoki eta laburtuta, 8. irudian ikusten dira.

Los contactos por grupo de diagnóstico y territorio, para el conjunto de hospitales públicos de media-larga estancia, se muestran en la [tabla 18.1](#) (hombres) y [18.2](#) (mujeres), representándose gráficamente y de forma resumida en la figura 8.



**8. irudia.** Ospitaleratze arrunteko diagnostiko-talde ohikoenak, egonaldi ertaineko/luzeko ospitale publikoetan nahiz pribatuetan, lurralde historikoen arabera.

**Figura 8.** Grupos de diagnóstico más frecuentes, según territorio histórico, en hospitalización convencional, en hospitales públicos y privados de media-larga estancia.

[19.1.](#) eta [19.2. tauletan](#) laburbildu dira egonaldi ertain-luzeko ospitale publikoetan maizen izaten diren diagnostikoak.

“Bronkitis akutu” eta “Garuneko infartu” da maizen ageri diren diagnostiko-multzoak.

Gizonetan, “Birketako beste gaixotasun buxatzaile kroniko batzuk” dago lehen postuan, eta emakumeetan “Bronkitis akutu” da lehenengo multzoa.

Los diagnósticos más frecuentes en hospitales públicos de media-larga estancia se resumen en las [tablas 19.1](#) y [19.2.](#)

Se observa que “Bronquitis aguda” e “Infarto cerebral” son los grupos de diagnósticos más frecuentes.

En hombres, “Otras enfermedades pulmonares obstructivas crónicas” se situaría en primer lugar, mientras que “Bronquitis aguda” ocuparía el primer puesto en el caso de las mujeres.



#### 4. Ospitale psikiatrikoak


[20. taulan](#) ikusi dezakegu ospitale motaren arabera zenbat kontaktu diren eta egonaldiaren batez-bestekoa eta mediana. [21. taulan](#) ditugu diagnostikorik ohikoenak, 3 digituko diagnostiko-kategorien.

9. irudian kontaktuen banaketa ikusten da adin-talde handien eta sexuaren arabera. 60 urtera arte, ospitalizazio-kasu gehiago dago gizonen artean, baina joera hori alderantzikatu egiten da adin horretatik aurrera.

#### 4. Hospitales psiquiátricos

En la [tabla 20](#) se puede observar el número de contactos así como la media y la mediana de la estancia según el tipo de hospital. En la [tabla 21](#) tenemos datos de las categorías de diagnósticos de 3 dígitos más frecuentes.

La distribución de los contactos, por grandes grupos de edad y sexo se muestra en la figura 9. Hasta los 60 años se observa un mayor número casos en los hombres, tendencia que se invierte a partir de esta edad.



**9. irudia.** Ospitaleratze arrunteko kontaktuak, adinaren eta sexuaren araberako taldeetan banatuta, ospitale psikiatrikoetan. Ehunekoa kontaktu kopuru osoarekiko.

**Figura 9.** Distribución de las contactos por grupos de edad y sexo en los hospitales psiquiátricos. Porcentaje sobre el total de contactos.

**1. taula.** Kontaktu guztiak ospitale-motaren eta asistentzia-motaren arabera. (e-l: ertain-luzeko). EAEko ez-egoiliarren kontaktuak ere sartuta daude. Ospitale moten ehunekoak zutabe ehunekoak dira (hau da, zenbat laguntzen duen ospitale mota bakoitzak asistentzia-mota bakoitzaren kontaktuen kopuruari). Aldiz, ehuneko totalak lerro ehunekoak dira (kontaktuen kopuru sailkapena, asistentzia-motaren arabera).

**Tabla 1.** Contactos totales por tipo de hospital y tipo de asistencia. (m-l: media larga). Se incluyen los contactos en no residentes en la CAPV. Los porcentajes para cada tipo de hospital representan porcentajes de columna (contribución de dicho subtipo al total de contactos de cada tipo de asistencia), mientras que los que se muestran en el total corresponden a porcentajes de fila (distribución global del nº de contactos por cada tipo de asistencia).

OSPITALE MOTA TIPO HOSPITAL	Asistentzia mota / Tipo de asistencia				Guztira / Total	
